

euskal herria 2020 (eta VI) > AZPIEGITURAK eta GARRAIOA

Autoaren ondoko aroa

Ingurumena babesteko beharrak garraibide alternatiboak lantzerantz bultzatu ditu eragileak

ENEKO BIDEGAIN

Garapen iraunkorra aho eta agiri guztietan dago orain. Errealitate izateko, mugitzeko moduak errotik aldatu behar dira. Horretaz oharturik, Euskal Herria 2020 txostena landu dutenek autoaren alternatibei eman diete lehentasuna. Horrek hiria eraikitze eta egituratzeko modua eta bizitzeko era eraldatzea erran nahi du.

Hiriaren hedatzea ere kontuan hartu beharko da; besteak beste, Hego Euskal Herriarekiko harremanen garapena. Harreman horiek «berez» handituko direla diote txosten egileek. «Jasan beharrean, kooperazioa bultzatu behar dugu eta aukerak baliatu». Bi aldeetako jarraipena duten azpiegiturak sortzea pentsatu nahi dute, estrategiak Hego Euskal Herriarekin batera hitzartuz.

Hogei bat ardatz edo aholku zerrrendatu dituzte biharko garraio sistema egituratzeko. Aukera anitz orain dauden azpiegiturak hobetuz obra daitezke. Ideia horiek obratzeari begira, Frantziako Estatuak zerbitzuak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia, Akitaniako Eskualde Kontseilua eta Ipar Euskal Herriko udal erakundeak bilduko lituzkeen lan talde bat sortuko dute. Talde hori urte bururatu baino lehen sortuko da, eta 2007tik aurrerako estrategiak landuko ditu. Hortik landa proiektuak aurrera eramateko behar diren koordinazioak osatuko lituzkete.

Proiektuak bultzatzearekin batera, herritarrei, hautetsiei, enpresei eta eragile guztiei ohartarazi nahi diete jarrerak aldatu behar direla.

Hiria

Hiria beste gisa batez egituratu beharko da, hala nola hiri erdiak eta herrien erdiguneak dentsifikatu, garraioaren, bizilekuen eta aktibitate guneen arteko osagarritasuna bermatuz.

Autoa mugatu

Norberak bakarrik autoa erabiltzea mugatzea da ardatzetariko bat. Horretarako, bizitokiaren inguruan autoa uzteko leku gutxiago ezarriko lirateke, toki gutxiago izateak auto kopurua mugatzea baitakarak. Gauza bera lantoki inguruetan, baina horri loturik lanera joa-

Garraioa IPAR EUSKAL HERRIAN



Biriatuko trafikoaren aurreikuspena

	2003	2025
Autoak	15.274	25.500
Kamioiak	7.853	14.500
Orotara	23.127	40.000


Muga pasaia

(eguneko auto eta kamioi kopurua 2004an)


	Autoak	Kamioiak
1 Hendaia	19.207	842
2 Behobia	13.023	1.131
3 Biriatu	11.935	7.304
4 Ibañeta	905	
5 Lizuniaga	730	
6 Lizarrieta	1.113	
7 Dantxarinea	3.258	
8 Izpegi	659	
9 Esnasu	181	
10 Arnegi	1.297	67
11 Larrañe	212	
12 San Martingo harria	337	

ITURRIA: GARAPEN KONTSEILUA

Mugitzeko moduak



Mugitzeko arrazoiak



A. PEÑALBA

teko garraio publikoa garatuko lukete. Aparkaleku handiak eraikiko lituzkete hiri bazterretan, jendea handik garraio publiko bidez joateko hiri erdira. Bizikletaz edo oinez ibiltzeko aukerak zabalduko lituzkete hiri barnean. Halaber, hiri erdian autoz sartzeak zergak ezartzeko aukera ere azter daitezkeela dio txostenak.

Topoa

Kostaldean topoaren gisako maiztasuneko tren linea baten sortzeko aukera aztertzea aipatu dute. Linea horrek lotura zuzena ukanen luke Hendaia-Donostia-Donoan Topoarekin. Linea hori Baiona-Angelu-Miarritze eremu barnera luzatzea ere ikertuko lukete.

Baiona-Garazi

Baionatik Garazirako burdinbidea berritzea eta jendea egunero bidaia tren linea horretan egitera bultzatzea aipatzen da. Akitaniako Eskualde Kontseiluak ez du berak bakarrik jasan ahal izanen

ren arteko lineak irekitzeaz ere goetatu dute, lurralde osoa hunkitzeko gisan.

Herrien artekoa

Udalek eta herri elkargoek eskatzen dituzten garraio publikoak ezartzeko iniziatibak hartzea proposatu dute. Herri txikietatik herri handigoetara doazen garraioak sortzea litzateke horren helburua.

Txartelak

Autobuserako edo trenerako txartelak eta beste sareetakoak erosteko sistema bakar bat zutik ezarri nahi lukete.

Hendaia-Bordele

Hendaia-Bordele burdinbide proiektuari buruzko iritzia bat eman nahi dute urtea bukatu baino lehen. Euskal Herria 2020 taldeak gogoetak eginen ditu ikusteko burdinbide horrek zer ondorio ekonomiko izanen duen, zer aldaketa eragingen duen trafikotik, Ipar Euskal Herria nola kokatuko den, nolako lurralde antolaketak beharko den, beste garraibideekiko lotura nola egingen den, gizarteak nola hartuko duen, ingurumenarentzat zer ondorio izanen duen eta azpiegitura berria behar den ala oraingoa zabaldu behar den.

A63 autobidea

Irailaren eginen da A63 autobidearen zabalteari buruzko inkesta publikoa. Euskal Herria 2020 ekimenak aukera anitz aipatu ditu etorkizunari begira, autobide horrek hiri inguruko saihesbidearen funtzioa betetzen du lekuko jendearantz, eta egoera horretara egokitzeko premia ikusten dute. Barnealdetik datozenentzat autobide horretarako sarbide zuzena eraikitze beharra ikusten da, Miarritze eta Biriatuko ordainlekuak kentzea aipatzen dute, lekuko jendearantz prezio bereziak egitea ere bai.

Nafarroako bidea

Saliere-Iruña errepedea «jario handiko garraibide izatea ekiditeari» garrantzia ematen dio Euskal Herria 2020 ekimenak. Proiektu horrek lekuko interesen alde egin dezan bermatzen ahalegindu nahi dute.

Errepideak hobetu

Barnealdetik kostalderako eta barnealdeko herrien arteko errepide sareak hobetzeko erronka aipatu dute. Donibane Garazitik Baionarako bidea eta Mauletik Baionarako hobetzea azpimarratu dituzte.

obra horien gastua, Frantziako Estatuak eta tokiko erakundeek ere parte hartu behar izanen dute.

Baiona-Ahurti

Baiona eta Ahurti arteko burdinbidea maiztasunaz erabil daiteke, topoaren gisan, egun hasieran eta bukaeran. Gauza bera egitea aipatu dute Landetara doan burdinbidearekin.

Baionako tren

Baiona eta Angelu inguruetako «sufrearen linea zaharra» berriz irekitzeko hipotesia ateratu dute. Burdinbide hartan bidaiarientzako linea bat irekiz, Angeluko eta Baionako enplegu eta merkatu gune nagusietara garraio publikoak joateko aukera bat gehiago izanen litzateke.

Autobusak

Baiona-Angelu-Miarritze hirigutako autobus garraio zerbitzua berriz pentsatzea aipatu dute. Horrez gain, kostaldearen eta barnealde-



A-63 autobidean, Biriatuko ordainlekuaren bi aldeetan